

lazko zartakoarekin akordatuta

APUSTUAK PAREAN AURTEN. Nabarmen irten zen dirua iaz Belokiren alde, eta poltsikoak hustuta itzuli ziren hainbat. Aurtan, lehen aldiz, Eugiren kolorea du diruak, gutxigatik

Enekoitz Telleria | **DONOSTIA**

Bi kolpe izan ziren eta biak handi samarrak, iaz apustuzale sutsuenek jarraian hartu zituztenak. Lau t'erdiko finala lehenengo. 1000-300ni irten zen orduan dirua Eugiren alde, eta Unanuek irabazi zuen finala ezustean. Iritsi zen Eugi eta Belokiren arteko Manomanistako finala, baina ez zuen jendeak lehen gertatutakoa aintzat hartu nonbait. 1000-500ni irten zen dirua Belokiren alde, baina maisutasunez nagusitu zen Eugi. Akordatu dira aurtan zartako hartaz apustuzaleak nonbait, eta dirua parean izango da igandean Atano III. ean, nahiz eta Eugiren aldekoak gehiago diren, gutxigatik.

«Pilota biribila da» eta «diruak ez du partidurik irabazten». Pilotak berarekin itsatsita dakartza bi esaldi horiek, baina ez dute apustuzaleentzat balio. Aurtan bertan, Esku Binakako Txapelketako finalean, Alustiza-Belokiren aldekoak ziren iragarpenak, eta haien alde jokatu-tako xoxik gehienak. Kale egin zuten berriro ere. Olaizola I. a eta Goñi III. a nagusi. Zer pentsatu ematen du horrek guztiak, eta aldiko poltsikoan zulo handi samarrarekin etxera bueltatzek, batik bat. Iazko finalean, finalerdiak hartu zituzten apustuzaleek erreferentzia gisa. Nago-

rereren gainetik egin zuen salto finalera Belokik, aise. Estu, eta batere itxura txukunik eman gabe lortu zuen txartela Eugik, Arretxeren kontra. Baina finala Eugirentzat. Izan ere, ez da erraza Eugi eta Belokiren arteko partiduen emaitzak iragartzea. 1993an hasi ziren finalak elkarren kontra jokatzeko, eta orain arte beti Ruben Beloki izan da apustuzaleen erreferentzia, baina ez errenta. «Dirua parean irten go da. Sakearekin, agian, Eugiren alde hasiko gara kantuan, baina ez dakit, oso orekatua dago», iragarri du artekari batek.

Tolosako Cantabricon, Eugiren aldekoak gehiago

Tolosako Cantabrico taberna da esku-huskako final handi guztietan apustuen erreferentzia, eta Eugiren aldekoak dira han euren apustua bota duten gehienak. Finalerdiak hasi baino lehen ere, bazen Eugi txapel-dun irten baietz 750.000 pezeta mahai gainean jarri zuenik.

Apustuz gainezka dago tabernako barra. Garestiena, Patxi Eugiren alde 2 milioi eta erdi jarri dituen pilotazale batena. Beste gehienak ere Agoizkoaren aldekoak dira, nahiz eta aldeia iazkoa baino txikiagoa izan. Izan ere, apustuzale gehienei kosta egiten zaie Belokiren kontra jokatzeko, ohituta daude eta binaka beti bere alde jokatzeko.



EGUNKARIA

Artekari bat, apustuatarako pilotak eskuan hartuta.

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Beloki eta Eugi Atano III. ean atzo

Entrenamendu saio arina egin zuten atzo Belokik eta Eugik, Donostian. Alberto anaiarekin eta Beginorekin aritu zen goizean Beloki. Arratsaldean, Eugi.

Aimar Olaizola ez da Barriolaren kontra ariko

Leitzan aritu behar zuten larunbatean Aimar Olaizolak eta Barriolak, Nafarroako lau t'erdikoan. Ez zaizkio eskuak osatu Aimarri, eta Iñaki Esainek ordezkatuko du.

ERREMONTEA

Ikuskizun aparta atzo Uharteko Euskalen

Benetako ikuskizuna atzo Euskalen Ezkurra-A. Lekunberri eta Zeberio II. a-Lizaso eskainitakoa. 35na joan ziren berdinduta, baina Ezkurak eta Anjelek irabazi zuten (40-36). Laurak txaloka agurtu zituen jendeak.

JAIALDIAK

ATZOKO EMAITZAK EUSKAL.

Ziganda-Astibia 35; Urra-Barrenetxea 33. Iñigo-Iriarte 37; Altuna I. a-Aizpuru 40. Ezkurra-A. Lekunberri 40; Zeberio II. a-Lizaso 36.

GAURKO PARTIDUAK

CARMELO BALDA. 16:30.

Zeberio-Fernando / Zabalza-Ziskar I. a. Iriondo-Beldarrain / Ziskar II. a-Garma. Egiguren anaiak / Konpa-Aranburu.

IRITZIA

Juan Inazio Zulaika ■ PUNTISTA OHIA

Nukleo gogorraz

Jesus Mari Mujika, etikako irakaslea da Donostiako Santo Tomas Lizeoan, eta hitzaldi ederra, txapela kentzekoa, eskaini zigun joan den astean. Adolezentziaz hitz egin zuen Mujikak, haurtzaroaren eta heldutasunaren artean dauden neska-mutilak gurasoekin duten harremanez.

Jakina da garai aldakorrek direla gureak. Garai bateko gurasoek eragina seme-alabengan, sukalde barruko heziketak, indarra galdu duela. Lehen, gurasoak ziren eragile nagusiak gaztetxoek nukleo gogorra egituratzerakoan, baita ere gizalegezko bizitza baterako balore unibertsalak transmititzerakoan: errespetua, elkartasuna, errukitasuna eta abar. Gaur egun, aldiz, sukaldeko giroa galdu egin dela, kalekoaren mesedera, batetik; bestaldek, oro har, egunerokotasunaren gorpil zoroan, arestian

aipaturiko printzipioak zokoratu egin ditugu, modaz pasata baleude bezala. Ondorioak, begi bistan, arazoak, gatazka, krisiak. Gurasoak noraezean, garai aldakor hauetan argibiderik gabe, askotan.

Mujikaren hitzaldiaren bezperan, Donostiako Balda pilotalekuan izan nintzen. Bertan, aspaldiko partez, pala eta zestapuntako partiduak. Estelarrean Insausti palista nafarrak parte hartzen zuen, egungo aurrelari onena. Puntaz, Egiguren anaiak, donostiarrak. Itxuraz, pilotazaleen gogoko jaialdi erakargarria. Itxuraz bakarrik, zeren eta, kontatzen hasiz gero hogeita hamar bat lagun gutxi gorabehera bertan bildu ginenok, pilotari, epaile eta artekari bakar bane.

Hustu egiten ari zaizkigu herramintzaritzen diren pilotalekuak, Balda, Bilbo-

ko Deportivo, Gernikakoa... erremediorik gabe, Hernaniko Galarreta berdina. «Belaunaldi baten kontua da erremon-tearena, desagertu aurretik», esaten zidan Euskalen artekari den Cesareo Gaztañagak.

XX. mendean, pilota industrialaren euskarria, nukleo gogorra, apustuan oinarrituta egon da, diru iturri nagusia. Azken hamarkadetan, ordea, zentzu guztietako mugen irekitasuna medio, deman oinarritutako jaialdiak lur jota geratu dira. Enpresa barruko neurketek ez dute inor erakartzen, 150 bat lagun, gehienez. Apustulariaz osatutako nukleo gogorra: «puntoak», Hernaniko Galarreta eta Bilboko Deportivon aurkitu dute euren Doñana eremu partikularra, belaunaldi baten kontua.

Kirol baten beherakada agerian gertatzen da gazteek bizkarra ematen diotenean, egia da inoiz ez direla gazte gehiegi hurbildu pilotalekutara, nukleo gogorra, apustulariak, nahikoa zen, nonbait, negozioari eusteko. Garai aldakorrek bizi ditugunak, eta kanpotik

etorritako kirol eta joera berrien aurrean, erabat deskolokatuta geratu dira modalitate gehienak, lokalismoan erori baitira, plaza jakin batzuetako kontua eta horrek marginazioa ekartzen du.

Lehian, errekorren liluran, epikaren edertasunean oinarritzen dira indarrean dauden kirolak; ez da gure kasua, herremintazko enpresariak behialako nukleo gogorrari begira daude oraindik, salbazioa puntuen hatzamarretan balego bezala. Noraezean dabilta, formula anakronikoak errepikatuz eta, ahal bada, diru publiko eske, Donostian Eusko Basque, zestapuntako enpresak, egin duen bezala, baita lortu ere.

Krisiak, gatazka bera ere bai, onuragarriak izan litezke, Jesu Mari Mujikaren hitzetan, arazoa sortzen da konponketa txarra duenean. Hemen, herramintzako modalitateen kasuan okerrean da ez dagoela inongo egitasmorik, etsita baleude bezala, eta, hori, adolezentziazko ezaugarria baino hirugarren adinaren egoera izan liteke: amore eman, betirako joan arte.